

Eduardo Nave

En el lugar

A la hora

A la hora, en el lugar
Eduardo Nave

2016ko maiatzaren
13tik ekainaren
26ra arte

Centro Cultural
Montehermoso
Kulturunea,
Vitoria-Gasteiz

Eduardo Naveren obraren alderdi hunkigarriena ez da ikusten dena, entzuten dena baizik. Bere argazkiak, paisaiaren inguruan etengabe entzuten egoteko ekintza dira, sekulako entzumen sentikor eta setatia izatearen ondorioak. Tokiaren auskultazioa da egileak ohiz erabiltzen duen prozedura ahotsaren haria bilatzeari ekiteko. Lortzen dituen atmosferak itxurazko lasaitasun egoera islatzen dute, baina min-keinua ezkututzen dute, eta horrek susmo- eta larritasun-giroa sortzen du. Argazkien bidez paisaiaren patologia aztertzen du isilarazitako seinalea askatzearen.

A la hora, en el lugar dokumentazio-lan zehatz bat da, eta lan horretan garrantzi berezia du soinuaren bitartezko tragediaren adierazpenak: iruditik bertatik sortzen den bolumenaren handitasuna eta sufrimenduaren intentsitatea. Hirurogeigarren hamarkadatik egun arte ETA antolakunde terroristak atentatuak egin dituen lekuetara joan da Eduardo Nave, eta egindako ekintzen izaeraren menpe jarri da. Egun berean, ordu berean leku zehatzera joan, eta argazkia egin du. Enkoadratzeak eta esposizio-denborak gertaeraren kokapena eta iraupena jaso dituzte. Argia edo ikuspuntu egokiena hautatzeko aukera izan gabe, errealitate gordina jaso du. Zehaztasunak eta jazoerekiko menpetasunak markatu dute proiektuaren bizipen-alderdia, eta balorazio plastikoari ere uko egin die.

Bost urteko lana da (2008-2013), eta proiektuak eszenatoki bakoitzaren inguruko zenbait prentsa-titular, irrati-transkripzio, espazio-koordinada eta bideo- eta audio-grabazio jaso ditu.

A la hora, en el lugar galeraren eta gabeziaren erretratua da, baina, batez ere, kendutako munduaren onarpena da. Irudi baten hutsuneak beldurraren eta izuaren berreraikuntza akustikorako aukera ematen du. Hori dela eta, argazkia eta erakusketa-diseinua erresonantzia-kutxa gisa erabili dira. Kokapen bakoitzak historia jasotzen duen larruzalaren jitea hartzen du, aztarnak eta ebakidurak dituen azal sentikorraren gisara. Nolabait esateko, gure oroimenaren zati bat grabatuta utziko duen film sentikorra da. Zenbait erreferentzia historikotik aurrera norberak eta inguruneak pairatzen dituzten mututasunaren eta mozketaren inguruan hausnartzen gonbidatzen gaitu Navek. Zalantzarik gabe, sintoma irudian betikotzen du eta entzuteko premiako deialdia egiten du obrak. Bere beste serie batzuetan gertatzen den bezala, oso zaila da egilearen begiradan ez ikustea ikus-requiemetako konpositorea. Bere lanak ahanzturaren aurkako sinfonia pertsonala egituratzen du, eta kendutako hitzarengatiko dolu poemaren itxura hartzen du.



10:15ean.
1992ko urtarrilaren 15a.

Vicente Blasco Ibáñez hiribideko lorategiak, lehengo Zuzenbideko Fakultatearen aurrean. València.

Manuel Broseta Pons.
Valentziako Unibertsitateko Merkataritza Zuzenbideko Katedraduna.

19:30ean
2010eko martxoaren 16a.

Rue Cambotetik gertuko bidea
Dammarié-lès-Lys, Ille de France.

Jean-Serge Nérin.
Polizia Buru Brigadiera.

19:30ean
1991eko maiatzaren 29an
Andreu Ferrer kalearen
Generalitat pasealekuaren arteko

Juan Chíncoa Alés. Guardia zibila.
Francisco Cipriano Díaz Sánchez. Ikaslea.
Maudilia Duque Durán. Zibila.
Ana Cristina Porras López. Ikaslea.
María Pilar Quesada Araque. Ikaslea.
Nuria Ribó Parera. Etxekoandrea.
Rosa María Rosa Muñoz. Ikaslea.
Vanessa Ruiz Lara. Ikaslea.
Juan Salas Piriz. Guardia zibila.

23:45ean
1978ko maiatzaren 9a.

Gabriel Aresti pasealekua,
Polloe udal hilerria.
Donostia, Gipuzkoa.

Miguel Ángel Iñigo Blanco.
Guardia zibila.
Juan Marcos González.
Guardia zibila.

16:50ean
1997ko uztailaren 12a

Miracamos urbanizazioko 3.
zenbakitik gertu.
Lasarte-Oria, Gipuzkoa.

Miguel Ángel Blanco Garrido.
Alderdi Popularreko zinegotzia.

+ INFORMACIÓN

www.alahoraenellugar.com
www.eduardonave.com

ORGANIZAN / ANTOLATZAILEAK

CENTRO MEMORIAL
DE LAS VÍCTIMAS DEL
TERRORISMO



PATROCINAN / BABESLEAK

Fundación *Victimas del Terrorismo*

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

COLABORAN / LAGUNTZAILEAK



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Vital gizarte ekarria
obra social

Galería Pilar Serra NÓPHOTO